Número 95. Zenbakia
ALE BEREZIA / NÚM. ESPECIAL
2003 Otsaila

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

astekaria

## EDITORIALA

### Arrosa kolorez jantzia



Zerga-politikak sistema publikoa mantentzeko behar adinako baliabideak eskuratzea du helburu. Bestalde, bere burua sozialtzat duen edozein estatutan zergak aberastasuna birbanatzeko bidea dira: diru-sarrera handienak dituztenek zerga gehiago ordaintzen dute, eta dirutza hori jende xeheak dituen premietara bideratzen da (osasungintza, hezkuntza, aukera berdintasuna, zerbitzu publikoak, etab.).

Gauzak horrela, garbi dago edozein politika aztertzerakoan zerga-ereduari eta txanponaren beste aurpegia den aurrekontu-politikari erreparatu behar zaiela, gurean bestela gertatzen bada ere.

Izan ere, hemen PFEZ berrituaren edukiaz eta diru-bilketan -eta, ondorioz, aurrekontuen atal sozialetan- eragingo duen beherakadaz ez dugu ezer entzun. Hemen sasi-politizazioak ez dio eztabaida sozialari lekurik uzten eta, esate baterako, aurrekontuei buruz jende gehienak ez daki Mayor Orejaren hankasartzeari esker onartu zirela besterik.

Jaurlaritza, noski, pozez txoratzen aurrekontuak onartzeaz gain, onartutakoaz inor gutxi jabetzea lortu baitu. Antzeko zerbait ari da gertatzen PFEZ berrituarekin, gain hontan ere arrosa kolorez jantzitako herkidegoaren propagandak hartu baitu informazioaren eta eztabaidaren lekua.

Horregatik gauzak aldatu nahi ditugunontzat, euskal ongizate-estatu ia idiliko horren beste aurpegia erakustea da lehendabiziko lana; propagandak propaganda, jaurlaritza eta aldundiak ezartzen ari diren politika fiskala ongizate-estatu batentzat ezinbesteko diren oinarrien azpijanean ari baita.

Aukeran
ELA
Babesik sendoena

## Lakua y Diputaciones pactan un nuevo IRPF

# REFORMA PODRIDA

### Más desigualdad, menos gasto social y el mismo fraude



El Órgano de Coordinación Tributaria –que reúne en su seno a Gobierno vasco y diputaciones de la CAPV– ha acordado las líneas de la reforma del IRPF que entrará en vigor una vez sea aprobada por las Juntas generales de cada uno de los tres territorios. La verdad es que lo único que la mayoría de la gente sabe de esta nueva reforma es lo que han dicho sus promotores: es decir, que “vamos a pagar menos” y que por tanto debemos recibirla con los brazos abiertos.

La cosa, sin embargo, no está tan clara como dice la propaganda. Ni mucho menos. Porque hay motivos para creer que la reforma favorece fundamentalmente a las rentas que no son del trabajo -que verán reducida su tarifa y dispondrán de nuevas oportunidades de beneficiarse fiscalmente- mientras perjudica a mucha gente que vive de su salario, pensión o desempleo, que tendrá una rebaja del IRPF inexistente o muy pequeña, y sufrirá el deterioro de las condiciones de bienestar que lleva aparejada la constante disminución de recaudación y la consiguiente bajada del gasto social.

En definitiva, la bajada de impuestos a los sectores económicamente más favorecidos la va a sufrir el gasto público en materias como sanidad, educación, atención de personas mayores y dependientes, vivienda, transporte, renta básica o políticas de empleo.

Fiscalidad y presupuestos son las dos caras de la misma moneda y están directamente relacionadas con el modelo de sociedad. Claro que ni el gobierno de Ibarretxe ni las diputaciones parecen tener interés en que se hable de esto y se abra un debate político y social sobre qué modelo de sociedad queremos y qué niveles de presión fiscal y gasto público exige ese modelo.

Es precisamente a suscitar este debate, hoy prácticamente inexistente, a lo que queremos contribuir con esta publicación que pretende explicar de la forma más sencilla posible las claves de la nueva reforma del IRPF, desmentir verdades oficiales, sacar a la luz la farsa de políticas que se publicitan como sociales y explicar las consecuencias que esas políticas tienen para la gente.

### Navarra

En este número sólo analizamos la reforma del IRPF en la CAPV. En Navarra se está proponiendo también una reforma, más regresiva incluso que ésta, cuyos contenidos analizaremos en otra publicación.



# IRPF: REFORMA





## HIRU GEZUR ETA ERDI

Erreforma berriaren onurak azaltzerakoan badira gure erakundeek hitzetik hortzera erabili dituzten hainbat argudio. Azter ditzagun:

«Erreformarekin denok irabazten dugu»

Gezurra. Errenta apalenek lehengoan jarraituko dute, erdi mailakoak zertxobait gutxiago ordaindu, eta errenta altuek aterako diote benetan etekina erreformari. Bestalde, bilduko den diru gutxiago horren ondorioz izango den gastu sozialaren murrizketa jende xehearen kalterako izango da batez ere.

«Erreformak langileei egiten die mesede, batez ere»

Gezurra. Alderantziz, beste diru-iturriak (gainbalioak, kapital higiezinak, pentsio-fondoak, ondarearen gaineko zergak, e.a.) dira gutxiago ordaindu beharko dutenak. Lan-errenten diskriminazioa, berriz, areagotu egingo da.

«Erreformak ez du gastu soziala kaltetuko»

Gezurra. Urtero 185 milioi € baino gehiago galduko dute Ogasunek. Horrela ezinbestean murriztu behar du aurrekontuak gastu sozialera bideratzeko aukera, horrela pairatzen dugun defizit soziala areagotuz. Beste kontua da euskal erakundeek berton dagoen defizit soziala konpontzeko inolako borondaterik ez izatea.

«Erreformak Europako Batasunean ezarritako ildoa jarraitzen du»

Erdi egia, erdi gezurra. Egia da EBeko estatu gehienetan, politika neoliberalen eraginez, zuzeneko zergak arintzen ari direla; baina ez da esaten EAEan presio fiskala nahiz gastu soziala Europako batez bestekoa baino askoz apalagoak direla. Erreformak, beraz, Europako Batasuneko egoerara hurbiltzeari uko egiten dio.

## LA REFORMA, PUNTO POR PUNTO

**1**. Reducción de la tarifa- El tipo marginal máximo pasa del 50% al 48%, y el mínimo del 17% al 15%. Consecuencia: Cuanto más alta sea la renta, mayor es el ahorro en el IRPF. Las rentas más bajas siguen igual.
**2**. Reducción de la tarifa aplicada a los incrementos patrimoniales del 18% al 15%.
**3**. Reducción de la tributación de las rentas generadas en más de 1 año: - si se generan en más de 5 años pasan de la exención del 40% al 50% - si se generan entre 2 y 5 años la exención pasa del 30% al 40%.
**4**. Reducción del límite conjunto de IRPF e Impuesto sobre Patrimonio del 70% al 60%.
**5**. Supresión del impuesto sobre incremento de valor por la venta de la participación en un fondo si se reinvierte en otro.
**6**. Aumento en 323 € de la reducción en la base por rentas de trabajo. Al ser una reducción en la base (y no en la cuota) beneficia más a quienes tienen ingresos más altos.
**7**. Aumento de deducciones en la cuota por descendientes, mayores de 65 y 75 años, etc., y modificación de algunos temas, como el de las cuentas de ahorro vivienda.



## A MÁS INGRESOS, MÁS REBAJA FISCAL

Dicen que el nuevo IRPF beneficia a todo el mundo. No es cierto. Para quienes tienen ingresos bajos, la reforma no supone cambio alguno. Para quienes tienen ingresos más altos la reforma sí supone una rebaja fiscal. Rebaja tanto mayor cuanto mayor sea el nivel de ingresos. Veamos algunos supuestos teóricos:

- **Amaia**, trabajadora en paro, percibe del INEM a lo largo del año una prestación por desempleo de 600 € al mes (100.000 ptas.).

- La pareja formada por **Andoni** y **Begoña** no tiene otro ingreso que el salario del primero: 13.500 € al año. Tienen una hija y un hijo menores. Pagan un crédito por vivienda de 300 € al mes.

- **Alicia** vive con un hijo menor, y tiene unos ingresos anuales de 21.000 €. Ha pagado ya su vivienda.

- **José Luis** tiene unos ingresos anuales de 60.000 €. Ha obtenido en este año una plusvalía de 12.000 €.

Pues bien, mientras para **Amaia** y la pareja **Antonio-Begoña** la reforma no supone variación alguna, **Alicia** pagará por IRPF 243 € menos (40.338 pesetas) y José Luis, 812 € menos (134.792 pesetas). Quienes tengan una renta superior a José Luis saldrán, naturalmente, aún más favorecidos, ya que, cuando mayor es tu renta más te favorece la reforma.

# ONTRA LA MAYORÍA

## EUROPA, GERO ETA URRUNAGO

Europa: horra hor 80. hamarkadatik lortu beharreko helburua, jarraitu beharreko eredua, iritsi beharreko helmuga. Arrazoi hori erabili dute gure agintariek PFEZaren argaltzea egiteko: Europan presio fiskala murrizten bada, hemen ere bai. Baina Europako kasuan Barne Produktu Gordinaren %42ko presio fiskalaz ari gara, gurean presio hori BPGaren 35%ekoa baino ez den bitartean.

Presio fiskalarekin hain lotuta dagoen gastu sozialari erreparatzen badiogu, berriz, Europan batez beste BPGaren %27,5koa da berau. EAEn, berriz, BPGaren %20koa baino ez.




## LAS HACIENDAS ANIMAN AL FRAUDE

Si nuestra estructura fiscal es en sí injusta, esta injusticia se multiplica si se tiene en cuenta el endémico fraude de las rentas no provenientes del trabajo, es decir, las rentas empresariales, profesionales y artísticas. Como muestra, un botón: los últimos datos disponibles (1999) muestran que los asalariados/as declararon unos ingresos medios de 15.183 € (2.520.358 ptas), y el grupo de empresariales, profesionales y artistas, 9.450 € (1.568.700 ptas.), es decir, 5734 € (951.844 ptas.) menos que el colectivo asalariado. Y lo peor, como se aprecia en el gráfico, es que la diferencia entre ambos tipos de rentas va en aumento de año en año. Vamos, que con estos datos tendríamos que creer que los empresarios pagan a sus currelas más de lo que ellos mismos ganan.

Y ante esto, ¿qué hacen las Haciendas? Pasividad total; poca inspección y menos penalización. Un ejemplo: en Alemania o Bélgica un empresario es inspeccionado por Hacienda al menos una vez cada cinco años. Aquí la inspección le tocaría una vez ¡cada más de cien años! Decir que las Haciendas animan al fraude de estos colectivos no es una exageración.

**RENTA MEDIA DECLARADA POR DECLARACIÓN EN EL IRPF.**
**HEGO EUSKAL HERRIA 1995-1999.** (último dato disponible)




## EL ESTADO DEL BIENESTAR VASCO, MÁS PROPAGANDA QUE REALIDAD

La reforma del IRPF va a suponer una pérdida de recaudación de más de 185.000.000 € menos al año. Pero la cosa es aún peor ya que hay que añadir el efecto de las reformas acumuladas a lo largo de los cuatro últimos años, que supone un menor ingreso de 600.000.000 € al año.

Lo curioso es que las autoridades nos dicen que esta merma de ingresos no afectará al gasto social, aunque no expliquen cómo puede ser algo que va contra la lógica más elemental.

Gobierno y Diputaciones se empeñan en convencernos de que vivimos casi en el mejor de los mundos posible. Oyéndoles se diría que tenemos la mejor sanidad de Europa, unos servicios sociales excelentes, una política de vivienda socialmente eficaz o una educación inmejorable.

La realidad, sin embargo, es otra.

- En el sistema de salud, tan ponderado, hay áreas tan importantes como la odontológica o la salud mental que están excluidas, se producen listas de espera inaceptables para determinadas intervenciones o la atención en algunas especialidades se puede convertir en una odisea para el paciente. Nada extraño, por otra parte, si se constata que estamos en el último lugar de la Unión Europea en la parte de la riqueza que se destina a gasto público sanitario. Los grandes beneficiarios de la situación son las consultas particulares y los igualatorios privados.

- Cada vez se destina menos porcentaje de la renta generada a gasto público en educación (dentro de la UE sólo superamos en esta materia a Grecia). Para 2003 destaca la drástica bajada del presupuesto para la euskaldunización del sistema educativo o el a todas luces insuficiente esfuerzo dedicado a la cobertura de las plazas que se demandan en el ciclo de 0 a 3 años.

- La falta de vivienda asequible condena a mucha gente, fundamentalmente joven, a no poder desarrollar un proyecto de vida propio o a cargar, si pueden llegar a ello, con unos créditos que les hipotecan para media vida. A pesar de lo dramático de la situación el Gobierno hace poco más que propaganda y es incapaz de satisfacer mínimamente las necesidades existentes en esta materia.

- Los servicios sociales (residencias, asistencia domiciliaria, personas discapacitadas...) son escasos y caros, una verdadera caricatura si los comparamos con los países avanzados de la UE. Y también aquí se está fomentando la privatización que hace negocio a cuenta de estas necesidades básicas. Las mujeres acaban realizando, en casa, más del 80% del trabajo.

- La renta básica está por debajo de los umbrales de pobreza, mientras las desigualdades sociales aumentan, de forma que muchas personas no pueden desarrollar una vida digna y autónoma..

La conclusión es muy clara: cuando todavía estamos muy lejos de los estándares de bienestar social de la UE, el objetivo de nuestras autoridades no es el de cubrir los déficits sociales para acercarnos a aquellos países, sino el de reducir ingresos. Y luego nos dirán que no hay dinero suficiente para gasto social.

Las cuentas, al final, terminan cuadrando y -por mucha propaganda que le echen- no es posible estar a la cabeza en gasto social cuando se está a la cola en presión fiscal.









## JOSE ELORRIETA

# EUSKAL AGINTARIAK NEOLIBERAL PETOAK DIRA

**–Zergak jaistea ez al da albiste ona?**

–Poltsikoari eta oso epe laburrera begiratuz gero, ziurrenik baten bat poztuko da PFEZ jaisteaz. Halere, ez zait berri ona iruditzen. Dirusarrera publikoak gutxitzen badira ezin zaie gastu sozialei aurre egin. Bi gai horietan berebiziko defizita daukagu Europako Batasunarekiko, eta are handiagoak estatu eskandinabiarrekiko, beroiek garatu baitute bereziki ongizate-estatua. Gainera, ez da egia PFEZ guztiontzat jaisten denik.

**–Agintariek diotenez, ez dago beste aukerarik.**

–Neoliberalek argudio hori sarri erabiltzen dute: Baina benetan sakoneko eztabaida saihestu nahi dute: zein gizarte eredu nahi dugun. Zaila egiten zaie esatea ez dela oinarrizko errenta gehitu nahi, ez dutela osasun sistema hobetu nahi, ezta etxebizitza publikoak eraiki ere; areago, nola esango dute hori guztia egitea baino nahiago dutela aberatsei zergak arindu? Ondorioz, aukera bakarra hori dela diote. Baina zerga politikak bestela ere egin daitezke, eta gizarte-gastua gehitu daiteke. Kontua borondate politikoa izatean datza.

**–Zergatik egin dituzte euskal ogasunek hiru erreforma azken lau urtetan?**

–Batetik, gogoz egiten dute, neoliberal petoak direlako; baina bigarren arrazoia Madrilen dago, hain maite omen duten autogobernua ez baitute oso serio hartzen: han erreformaren bat plazaratzen denerako hemen ez dute atzera geratu nahi.

**–Zergatik hartzen dio kargu sindikatu batek PFEZaren erreformari?**

–Gizarte bidezko eta solidarioago baten alde gaudelako. Zergak errenta banatzeko ereduaren oinarrizko zutabea dira, negoziazio kolektiboa eta gizarte-politikekin batera. Euskal ogasunak eskuzabalak dira enpresaburuekin, diru-sarrera handienak dituztenekin eta iruzurgileekin (sozietate-zergaren jaitsiera, PFEZeko tipo altuenen murrizketa, iruzurrarekiko utzikeria); aitzitik, politika horiek ez diete mesederik egiten diru-sarrera apalak dituztenei, eta garrantzi handiko beharrizan sozialak ez zaizkie asetzen. Desberdintasuna Euskal Herrian ere areagotzen ari da.

**–Ba al dago PFEZaren inguruko eztabaidarik?**

–Gizarte esparruko gaiei buruzko eztabaida politikoa oso urria da. Ia inork ez du PFEZaren erreforma aipatu, ez dago taxuzko eztabaidarik. Penagarria da. Alabaina, erakundeek diote eurek ordezkatzen dutela herritarren borondatea.

Baieztapen horrek badu ordea buelta: Herritarren %90etik gora Irakeko gerraren aurka dagoen arren, Aznarrek zalantzarik gabe alde egin du. Honek argi adierazten du erakundeak eta herritarren borondatea ez datozela beti bat. PFEZarekin eta zergekin antzekorik gertatzen da. Bertoko herritarrek zerga gehiago eta gizarte-babes handiagoa eskatzen dute, inkesten arabera. Baina politikariak kontrako bidetik doaz.

**–Beraz, ELAk egoera honen aurrean badu zer esanik...**

–Noski baietz! Batzuk demokrazia oso era estuan ulertzen dute. ELAren aburuz, demokrazia ez da lau urtean behin bozkatzea soilik; askoz esanahi sakonagoa du. Gizartea eraldatzeko asmoa gauzatzearren mobilizazioa eta politika errebindikatiboa beharrezkoa da eta sindikatua buru-belarri murgildu behar da lan horretan.




*Tenemos un sistema fiscal injusto y regresivo, que se nutre de las rentas del trabajo y los impuestos al consumo.*

*No es cierto que sea la única política fiscal posible. Es el resultado de una opción política que prefiere bajar los impuestos a las rentas altas que dedicar más recursos a vivienda pública, mejora de la sanidad o servicios sociales.*

*El autogobierno fiscal se está reduciendo a calcar las rebajas de impuestos decididas por la Hacienda española.*

*Los impuestos, la negociación colectiva y la política social son los instrumentos fundamentales para redistribuir la riqueza.*

*Nos estamos alejando cada vez más del modelo europeo. No es posible hacer política social reduciendo la fiscalidad.*

*La sistemática desinformación en materia fiscal y presupuestaria es un fraude democrático.*

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bibao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
**Web: www.ela-sindikatua.org**

Franqueo concertado
Nº 08/207